


PISA-2009



1. Mapa 1- PISA 2009ann parte hartzen duten 65 herrialdeak

Kooperaziorako eta Hazkunde Ekonomikorako Erakundeko herrialdeak:

Alemania, Australia, Austria, Belgika, Kanada, Korea, Danimarka, Eslovakia, Espainia, Estatu Batuak, Finlandia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Italia, Islandia, Japonia, Luxenburgo, Mexiko, Norvegia, Zeelanda Berria, Herbehereak, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Txekiar Errepublika, Suedia, Suitza, Turkia (herrialde hauek ilunduta ageri dira).

Parte hartzen duten herrialde elkartuak:

Albania, Argentina, Azerbaijan, Brasil, Bulgaria, Txile, Kolonbia, Kroazia, Dubai (UAE), Eslovenia, Estonia, Errusiar Federazioa, Txina- Hong Kong, Txina - Macau, Txina -Taipei, Txina - Shanghai, Indonesia, Israel, Jordania, Kazakhstan, Kirgizistan, Letonia, Liechtenstein, Lituania, Montenegro, Qatar, Panama, Peru, Dominikar Errepublika, Moldaviako Errepublika, Errumania, Serbia, Singapur, Tailandia, Trinidad eta Tobago, Tunisia, Uruguay (tonu ertainean).

Zer da PISA?

PISA Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programaren ingelesezko siglak dira (*Programme for International Student Assessment*). Nazioarteko azterketa da, eta aztertzen du 15 urteko ikasleek erdietsitako maila garapen pertsonal, laboral eta sozialerako funtsezkoak diren gaitasunetan: hain zuzen ere, irakurriaren ulermenean, gaitasun matematikoan eta gaitasun zientifikoan.

Egitasmo honek ikasleek eguneroko bizitzan moldatzeko dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak ebaluatzen ditu, eta ikastetxean ikasten denaren eta bizitzan zehar ikasten denaren arteko konexioaz arduratzen da.

Gai dira ikasleak eskolan ikasi dutenarekin gaurko gizartean eta etorkizunekoan moldatzeko? Gai izanen dira egoera pertsonal eta sozialen aurrean modu aktiboan esku hartzeko?

Galdera hauei erantzuten die PISAk. Gainera, herrialde eta erkidegoen arteko emaitzak erkatzen ditu, hezkuntza hobetzeko xedearekin.

Zenbat urtetan behin egiten da PISA?

PISA hiru urtean behin aplikatzen da. Aplikazio bakoitzean aipaturiko hiru gaitasunak aztertzen dira, baina horietako bat sakonago aztertzen da. Lehenbiziko PISA azterketan, 2000 urtean egindakoan, gaitasun nagusia irakurriaren ulermena izan zen. 2003 urteko PISA gaitasun nagusia matematikoa izan zen, eta 2006.ean, zientzia. Orain, 2009.eko PISAk berriz ere aztertuko du irakurriaren ulermena.

Nork hartzen du parte PISAn?

PISA azterketa Kooperazio eta Hazkunde Ekonomikorako Erakundearen kide diren herrialdeek lankidetzan antolatzen eta zuzentzen dute. Elkartuak diren herrialdeak ere gero eta gehiago dira. Osotara, herrialde parte hartzaileak 32 izan ziren 2000.ean, 41 2003an, 57 2006an eta 65 2009an (ikus 1. mapa).

Zeinahi herrialdek hartzen ahal du parte, eta herrialde baten baitan, zeinahi erregioek edo autonomia erkidegok.

Nafarroak hartzen du parte?

Nafarroak parte hartzen du PISA azterketan bere laginarekin, 2006tik aurrera. 2003.ean 3 autonomia erkidegok hartu zuten parte (Gaztela eta León-ek, Kataluniak eta Euskadik). 2006an beste zazpi sartu ziren (Andaluzia, Aragoi, Asturias, Kantabria, Galizia, Errioxa eta Nafarroa). 2009an, beste lau sartu ziren (Balear Uharteak, Kanariak, Murtzia eta Madril).

Gure ikastetxeak parte hartzen du

Ezin dute parte hartu Nafarroako ikastetxe guztiek, lagin batek soilik. Ezaugarri guztietako 51 ikastetxe hautatu dira: publikoak, itunduak, G/A eta D ereduak, handiak, ertainak eta txikiak.

Ikastetxe bakoitzean ausaz hautatuko dira 35 ikasle, 1993. urtean sorturikoak. Batzuk DBHko 4.ekoak izanen dira, beste batzuk 3.ekoak eta azken batzuk 2.ekoak. Denak ere garrantzitsuak ebaluazio honetarako.

1./2. aldiz hartuko du parte gure ikastetxeak Nafarroako laginean. Dena aurreikusita dago jarduera ahalik eta baldintzarik egokienetan egiteko. Ikasleek goiz bat emanen dute ebaluazioan. Esan beharrekoa da jarduera hezgarri garrantzitsua dela, ikasleek dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak aktibatu behar dituztela konplexutasun maila desberdineko hainbat lan ebatzeko. Lan horiek matematikarekin, zientziekin eta batez ere irakurriaren ulermenarekin loturikoak izanen dira.

Noiz jakinen dituzu emaitzak?

Kontuan hartuz, batetik, datuen bolumena handia dela, eta bestetik, azterketaren erkagarritasuna eta fidagarritasuna bermatzeko azterketa estatistiko zorrotza egin behar dela, emaitzak 2010ko abendu aldera argitaratuko direlakoan gaude. Herrialde guztietan modu bateratuan argitaratuko dira, baita Nafarroari dagozkion datuak ere.

Zertarako hau guztia?

PISAn parte hartzearen xedea da gure hezkuntzaren azterketa zehatz eta objektiboa erdiestea, gainontzeko herriekin erkatuta eta kontuan izanik errendimenduari eragiten dioten aldagaiak, besteak beste: Hezkuntzan egiten den inbertsioa, BPG, maila soziala, kulturala, ekonomikoa, etab. PISAk informazio hori arduradun politikoen esku uzten du, neurri eraginkorrakoak har ditzaten, hezkuntza-zerbitzuaren etengabeko hobekuntza bultzatze aldera.

PISA eragin handia izaten ari da herrialde guztietako curriculumetan eta ebaluazioetan; hori baita xedea, hobetzen ikastea.

Ikastetxe eta hezkuntza erkidego gisa nazioarteko ebaluazio honetan azpimarratu nahi dut zeinen garrantzitsua den guk parte hartzea, modu solidarioan sustatu behar dugulako gure hezkuntza sistemaren hobekuntza. Horretarako beharrezkoa da ebaluatzea.

Mila esker zure laguntzagatik. Informazio bilkura batera dei egiten dizut, egunerako.

Ikastetxeko zuzendaria

PISA 2009n parte hartzen duten autonomia erkidegoak



PISA 2009 lagina handitu duten autonomia erkidegoak:

Andaluzia, Aragoi, Asturias, Balear Uharteak, Kanariak, Kantabria, Gaztela eta León, Katalunia, Galizia, Errioxa, Madril, Murtzia, Nafarroa eta Euskadi.

PISA 2009 lagina handitu duten hiri autonomoak: *Ceuta eta Melilla*